



Hala ko Batean

Ordurako, eguzkiaren azken izpiak, itsasoaren ostean izkutatzen ari ziren. Olatuak hondartzara joan etorrian zebiltzan, noiz behinka, itsasuntzien hondakinak, mila koloretako txirla hilak, algak... ur ertzean utziz.

Oporretan bizilekutzat erabiliko genuen etxetxea ikusten geunden. Ez zen oso handia, baina, konformatzekoa zen. Teilatua marrubia bezain gorri ikusten zen, eta bere sei leihoetatik paisaia ezin hobea ageri zen, eguzkiaren izpi ahulek argitzen zutelarik. Gainera, munduko igerilekurik handiena geneukan: itsasoa.

Gau hartan, ez nuen lorik egin, baina ez hunkipenaren eraginez. Ez horixe! Dirudienez, kaioren batzuk, beraien burua mozolotzat harturik, gau osoa esnaturik pasatu zuten.

Hurrengo goizean, lehenengo esnatu nintzen, ez bainuen lorik egin. Inor ez zegoen jeikita, beraz, gaileta batzuk hartu eta kanpora irten nintzen. Ongi begiratu nuen ingurura. Gure etxetik hurbil, herriska ttipi bat ageri zen, elizdorre erraldoi batekin. Ez nion atentzio handirik jarri herriari, eta, hondartza mugatzen zuten haitz batzuetan finkatu nuen nire arreta osoa...

«Zu! Horiek bai harritzarrak, hor karramarroak barra-barra egongo dira, batzuk harrapatu ditut. Gainera, baliteke handikoteren batzuk aurkitzea, eta horrela balitz, gauean izugarritzko festina egingo genuke.»


Pentsatu eta egin! Han irten nintzen erbia bera baino azkarrago. Gogoratu nintzen, noski, aitak esana zidala behin baino gehiagotan haitzetan ez ibiltzeko.

«Baina, niri zer axola tontakeria horiek, umekeriak besterik ez dira. Beraiek haitzetan ibiltzeko gai ez direlako, uste dute gu erori egingo garela. Ba! txatxukeriak.»

Pentsamentu honekin hasi nintzen haitzetera igotzeko ahaleginak egiten. Entsaladako letxugetan aurkitzen diren marraskilo mukitsu haien larrua bera baino irristakorragoa zegoen haitza. Zirkoetako ekilibristen antzera nenbilen, erori beharrean.

Bila eta bila ibili ondoren, han ikusi nuen karramarro bat, haitz gainean eguzkitan etzanda.


«Beno, ba, orain nahikoa belztu denez, ez zaio askorik axolako nire lapikoan amaitzea bere bizitza miserablea.»



Isil-isilik hurreratu nintzaion atzetik eta... zazt!!

Nire bi eskuen artean preso hartu nuen, baina ez luzarorako. Bere pintzekin, nire atzamarretak bati kolpe egin zion. Guraizeak baina mingarriagoak ziren. Laster askatu nuen, eta azkar izkutatu zen haitz bitarte batean.

Ez nekien karramarroak harrapatzea hain mingarria zenik. Baina onartu beharra daukat, ez naizela oso habila honelako gauzetan. Beraz, karramarro ehiza alde batera utzi, eta haitz zapal baten gainean etzan nintzen, zeruari begira. Noizbehinka, haitzak zakarki lazantzen zituzten olatuen azken aparrak iristen zitzaizkidan, nire aurpegi lehorra freskatzeko.



Han denbora luzez egon ondoren, etxera itzultzea erabaki nuen. Etxerako bidean, bi metroko sakonera zuen haitz bateko zulo bat aurkitu nuen. Zuloaren barnean zerbaitek dir-dir egiten zuen. Ikusmina sortu zitzaidan, beraz, nire jakinmina asetzeko zulora sartzea erabaki nuen.

Sartzeko ahaleginetan nenbilela, harri bat askatu zitzaidan oinpean eta, zuzenean zulo barrenera erori nintzen. Ez nuen golpe handirik hartu, baina, bai ikara handia! Dir-dir hura sortzen zuena ikusi nuen! Bi begi hori dizdiratsu ziren! Ikararekin ezin nintzen mugitu, begi haien begirada zorrotz eta ilunak, zeharo beldurtu ninduten!

Sustotik zuzpertz nintzenean, bi begi haiek ukitzeko ahalegin bat egin nuen, baina, ukitzera nindoan momentuan iluntasunean galdu ziren, desagertu egin ziren. Zulo beltz hartan luzaroago egoteko gogorik ez nuenez, zutitu, eta, zuloan gora egiteko indarra egin nuen. Orduan konturatu nintzen oinetako bat haitz artean katigatuta nuela. Ordea, beste arazo bat ere gaineratu zitzaidan, marea gorantz zetorrela eta bizkor bizkor gainera! Momentuan heldu zitzaidan gerriraino. Hura bai zela estutasuna! Nire azkena ote zen!!!

Beste zer eginik ez eta, nekizkien errezu guztiak bota nituen, eta ez alperrik. Bazirudien «Goikoak» nire errezuak entzun zituela, eta laguntza bidali zidan. Zuloaren hasieran, aita ikus nezakeen eskua luzatuta igotzen laguntzeko! Bere eskuari itsatsi nintzaion lapa baten moduan, eta gorantza egin genuen geure indar guztiez.

Ordurako, itsasoko ur gazia nire ahoan somatzen nuen, eta bihotza lokomotoraren pare neukan. Ezinean genbiltzan biok, eta, ezinaren ezinean, oina aske sentitu nuen... Orduan bai irten nintzela gorantza!

Zulotik irten nintzenean, aitak izugarritzko bronka bota zidan eta, haitzetan ez nintzela ibili behar eta antzerako gauzak esaten jardun zitzaidan. Ez nion kontrarik egin momentu baten ere... Nor ausartu!

Baina..., zer ote ziren hain begirada zorrotza eta iluna zuten bi begi haiek? ■